

# Bilakaeraren filosofia.

## Gilles Deleuze, filosofo nomada

**Joseba Tobar Arbulu**  
EHUko irakasleak

Deleuzeren filosofia, beraren bilakaera bera aipatuz erakutsi da. Horretarako, Guattarirekin izandako lankidetzaz aztertuz, Negriengan biok izan duten eragina nabarmendu da.

Dialektikaren aurka, aniztasunen eta bilakaeraren pentsamendua eraiki nahiz aritu da Deleuze. Spinozak praktika eta poztasuna ontologian ezarri nahi ditu eta Deleuzerekin ezartze horrek paradigma hegeldarrekin erabat haustea suposatzen du. Egungo gizartea aztertzearen, 'ihes-linea', 'gutxiengoa' kontzeptuak proposatu ditu, eta 'komunikazio' arloan diruak duen errola analizatu, Bernard Schmitt ekonomilariaren lanak azpimarratuz.

Deleuze pentsalari nomadatzat aurkeztu dugu.

Deleuze's philosophy and his own development of becoming a philosopher is explained in this writing. After analyzing his collaboration with Guattari, the influence that both of them have had on Negri's work is mentioned.

Against all kinds of dialectic, Deleuze tries to work on a new kind of thought based on difference and multiplicity. Deleuze's analysis of Spinoza's cultivation of joy and practice at the center of ontology finally results in a complete break from the Hegelian paradigm. In order to analyze present society he creates the concepts of 'line of flight' and 'minorities'; also in dealing with 'communication' he has remarked the role of money in communicating, Bernard Schmitt's works underlining.

Deleuze is introduced as a nomad thinker.

«Egunen batean, agian, mendea deleuzetar izanen da.»

Michel Foucault

«Signes particuliers:  
voyage peu, n'a jamais adhéré au  
Part Communiste, n'a jamais été  
phénoménologue ni heideggerien,  
n'a pas renoncé a Marx, n'a pas  
répudié Mai 68.»

*Magazine Littéraire*,  
1988, 257 zenb.

## 1. Anizkuntasunaren ildotik

Gilles Deleuze, bitartekaritza hegel-darraren aurka, diferentzia anizkunen eta eite edo aspektu zatidunen aldekoa da (Deleuze 1968a).

Deleuzeren lehenengo testuak (1953, 1962, 1963, 1966, 1968) “kritika filosofikoan” sar daitezke<sup>1</sup>. Epe horretaz hauxe idatzi du berak:

Filosofiaren historia beti botere-agentea izan da filosofiaren barnean, baita pentsamenduaren barruan ere. Errepresio-errola jokatu du beti. Nola pentsa dezakegu zerbait Platon, Descartes, Kant eta Heidegger eta autore horietaz Sandiak eta Urliak egindako liburua irakurri gabe? Pentsamendua-ren espezialistak ekoizten dituen beldur-eskolak, eskolatik kanpo aritzen direnek, berezitasun horretaz trufatzen direnek, berezitasun horri besteak bezainbeste edo gehiago egoki dakizkion lortu dute. Historikoki pentsamenduaren imajina, filosofia deitua, eraiki da, zeinek jendeari pentsatzea debekatu baitio.

Horregatik tradizio arrazionalistaren aurka egon diren zenbait pentsalari

(Lukrezio, Hume, Spinoza, Nietzsche) aztertzen saiatu da, hegelianismoa eta dialektika gaitzesten dituelarik (Deleuze 1990: 14). Deleuzek dioenez (1990: 15), Nietzschek bera atera zuen mundu horretatik. Bestalde, Spinoza filosofo absolututzat (Deleuze 1990: 191), filosofoen filosofotzat (1990: 225) hartu du, *Etika* kontzeptuaren liburua handia dela dioelarik, berorren V. kapitulua gorapatuz.

1968an, *Différence et Répétition* (1968a) eta *Logique du Sens* (1968c) liburuekin bere “filosofia kritikoa” epeari hasiera ematen zion Deleuzek. “Diferentzia” bere horretan pentsatu beharra dago, eta ez batera eramanik, ezta errepresentazioaren bitartez edo bitartekaritza bidez ere. Orduan Deleuze, bere izenaz, mintzatzen hasi zen:

Norberaren izenean zerbait esatea kurioa da oso; zeren ez baita, ezta pentsatu ere, norberak *ego* batez, pertsona batez edo subjektu batez, bere burua hartzen dueneko, bere izenaz mintzatzen deneko, unea. Aitzitik, indibiduoak bere egiazko izena hartzen du, despertsonal izatearen ahalegin tinkoaren ondorioz, bera erabat zeharkatzen dituen anizkuntasunei, berak kurritu dituen intentsitateei, irekitzen zaienean.

Logika hegeldarretik at, beste logika mota bat eraikitzen saiatu da Deleuze, anizkuntasunaren logika, hain zuzen ere. Deleuzek dioenez, ez da nahikoa «gora anizkuna» aldarrikatzea. Arazoa zera da, anizkuna bera ekoiztea, eraikitzea, egia ez deskubritzea produzitzea baizik.

Bestalde, Deleuzeren ustez, badago harreman pribilegiatua filosofiaren eta

1. Esan dezagun berri gisa, *Grandeur de Marx* izeneko liburua idazten ari dela orain.

neurologiaren artean. Izan ere, gaur inspiratzen gaituena ez da konputagailugintza, burmuinaren mikrobiologia baizik, berori, probabilitatezko mekanismoekin, errizoma bezala, aieta legez, *an uncertain system* legez aurkezten baita (Burns 1968, Rose 1976, Changeux 1985, Churchland 1986).

Negrik Guattarirekin izandako adiskidetasunaren ondorioz lortu duen emaitza (Negri eta Guattari 1989), Deleuze eta Guattariren emaitzatariko bat besterik ez da. Izan ere, hamaika bider goraiatu du Negrik Deleuze eta Guattariren *Mille Plateaux* testua, behin eta berriz bertan agertzen diren kategoriak gogoratu.

## 2. Guattariren eskizo-analisiaren ildotik

Lau kategoria nagusi ikertu ditu Guattarik: Deleuzerekin batera, fluxua eta makina desiratzailleak (*L'anti-Oedipe* liburuan) makinak (*Mille Plateaux* delakoan); eta bakarrik, lurraldetasun esistentzialak eta erreferentzi unibertsoak (Guattari 1989).

1970ean Felix Guattarirekin topo egin eta gero, bien artean eginiko *L'Anti-Oedipe* liburuak (1972) psikoanalisiak inkonszientearen sintesien erabilera transzendenteari egindako kritika zorrotza besterik ez da. Harrez geroz, Guattarirekin lorturiko emaitza, emankorra izan da: *Rhizome* (1976), *Mille Plateaux* (1980), *Qu'est-ce que la philosophie?* (1991). Bi autoreok psikoanaliaren ordezkiz eskizo-analisia proposatu dute.

Deleuzek Guattarirekin izandako harremana Deleuzeren *Pourparlers* izeneko liburuan (1990) argi eta garbi agertzen da.

Makina desiratzaillea makina inkonszienteen kontzeptioari dagokio. Produkzio desiratzailleak errepresentazio-sistema (Edipo eta abar) batetara murrizten duen bitartean, inkonszientearen fabrikak antzerkiaren eskema batetara murriztuz, Deleuze eta Guattarik (1972) psikoanaliaren teoria eta praktika eraso dituzte. *L'Anti-Oedipe* liburuak psikoanalisi kritikatzeko badu, azken honek inkonszienteaz daukan kontzeptio okerrarengatik da. Izan ere, inkonszientea ez da antzerkia, fabrika baizik, ekoizteko behar den fabrika alegia. Psikoanalisiak ez du inoiz ulertu artikulua indefinituak zer esan nahi duen, plurala eta anizkuna pentsatzeko ez-gai da. Psikoanalisi bizitzaren aurkako zerbait da, heriotzaren eresia, apezño berrien kaxkarkeria besterik ez.

*L'Anti-Oedipe* liburuak freudo-marxismoaren sinplekeriarekin bukatu du. Foucaultek dioenez (1988), liburu hori ez-fazista den bizitzaren sarrera da, etikari buruzko saioa.

Psikiatria materialistak, Guattarirekin (1972,1979), desioan produkzioa sarrerazten du, eta alderantziz, desioa produkzioan. Honela, botereari ihes-linea aktibo eta positiboak kontrajartzen zaizkio, zeren eta linea hauek desiora, desio-makineta eta desioko arlo sozialera eramaten baitute.

Deleuzeren iritziz, *L'Anti-Oedipe* inkontzientea spinozismoaren antzekoa da. Zentzu honetan, Deleuze eta Guattari inkonszientearen konstruktibismoaren aldeko dira. Subjektua (eta objektua) aipatu gabe, prozesuak besterik ez daudela diote autoreok, prozesuak anizkuntasunean aritzen direlarik.

Bere azken obran Guattari (1989)

Estatuaren eta politikaren beste kontzepzio bat sortzen ahalegindu da, informazio-, komunikazio- eta produkzio-medio modernoek daukaten potentziala kontutan edukiz.

### 3. Desioaz hitz bi

Deleuze eta Guattarik diotenez (1972), desioa ez dago inolako legeari loturik, eta ez da inolako gabezia esentzialaren bidez definitzen. Apaiz batek soilik defenda lezake horren aurkakoa, hots, legea desioaren nukleo bezala, desioa gabezia legez, subjektu zatitua, heriotzaren pultsua, heriotzarekiko kultura berezia... Honela, argi dago, desioa subjektu eta objektuaren zubitzat hartzen bada, kasu honetan, desioaren subjektuak "zatiturik" egon behar duela.

Deleuze eta Guattarik erakutsi dutena, aitzitik, hauxe da, desioa *subjektu* eta *objektu* koordenada horietatik kanpo dagoela. Desioa prozesutat definitzen dute, kontsistentziako plano batean eratua, inmanentziako arlo bat, objektuetatik eta subjektuengandik ihes egiten duten fluxuak ibilitako arloa. Desioa, beraz, ez dago subjektu baten barruan, ezta objektu bateranzko joeran ere; eraiki behar den plano batekiko inmanentea da, plano hori baino lehenago ez baita existitzen. Plano horretan fluxuek jokutzen dute. Arlo horren hedapenik ez badago, ez dago desiorik. Kontsistentziako eta inmanentziako planoak hutsune eta desertuak dauzka, baina horiek desioaren osagaiak dira, eta ez diote inolako gabeziarik irekitzen<sup>2</sup>. Desertuan tribuak egon ohi diren moduan, hutsunean fluxuak eta partikulak bizi dira.

Desioak gabeziari lotzen dizkioten azken apaizak indibidualkerian murgiltzen diren bitartean, Deleuze eta Guattariren ustez desioaren plano aeraikitzea politika mota bat da; beraz, kolektibo bat suposatzen du, bilakera sozialen multzoa: kontsistentziako eta inmanentziako plano a, beraz, Spinozak nahi zuen moduan.

Desioa beti dago inmanentziako eta osaketazko plano batean makinaturik, zeinek desio-makinarekin batera eraiki behar baitu. Desioa soilik makinatua ageri da. *Makina* kontzeptuak ez du esan nahi mekaniko edo eta organiko denik. Aitzitik, elementu heterogeneo independenteen arteko auzotasun-multzoa da.

Norberak, taldeak zein gizabakoak, bere bizitza aurrera atera ahal izateko, bere inmanentziako plano aeraikitzea da garrantzitsua. Baldintza horiek ematen ez badira, gabezia ahalbideratzen duten baldintzen gabezia. Makinak, dispositiboak, desioa adierazi eta sortu egiten du, bera ahalbideratzen duen, eta ahalbideratuz gauzatu egiten duen plano aeraikiz.

Desioa, beraz, prozesu inmanentea da. Desioa eraikitzailea da, ez bat-batekoa. Dispositibo guztiak kolektibo direnez, desioa bera kolektiboa da; dudarik gabe, edozein desio arazo molekularra da, arazo kolektiboa. Bilakaerak daude soilik, politikak. Elkar gurutzatzen, jokutzen edo oztopatzen duten lerro desberdin batzuek osatzen dute desioa, alegia inmanentziako plano batean makina edo dispositiboa osatzen dutenak. Baina planoak ez du existitzen bera osatzen duten mekanismo horiek baino lehenago. Gabe-

---

2. Psikoanalistek nahastu egiten dute hutsunea eta gabezia.

ziarik gabe, beraz, baina ez arriskurik gabe. Izan ere, hau ez da psikoanalisi; alderantziz, arriskuak esperimendu errealean kokatu behar baitira. Gabezia alde aurretik interpretazioarekiko da, orijinal omen den zerbaitekiko. Deleuzeren ustez, ordea, elkar gurutzatzen duten fluxuen aurrean gaude, ez zerbaitetara murrizten diren gauzen edo zerbaitetik datozenen aurrean. Beraz, egin behar dena kartografiaren antzeko zerbait da, inoiz ez sinbologia. Desioan garrantzitsuena kokatzea da, birkokatzea eta deskokatzearen mugimenduak.

Beti gaude zerbaiten erdian. Politika esperimenduz aktiboa denez, inork ez du alde aurretik jakingo lerro batekin zer gertatuko den. Arriskuak badaude, noski. Guattarik, kasu, Estatu-aparatutik kanpo dauden mikro-faxismoak aspaldi salatu zituen: korpuskuluaren stalintxoak, taldetxoaren jarrera faxistak, abangoardismoa.

#### 4. *Theatrum philosophicum*

Esan bezala, filosofia jendeari pentsatzea debekatu dio. Filosofia Estatu baten hizkuntza huts ofizial bilakatu nahi izan da. Horretarako, aldiz, gaur eguneko filosofiaren historiak porrot egin duela esan daiteke, zeren Estatuak ez baitu filosofiaren onarpenik behar. Izan ere, zenbait lehiakide ageri dira beraren orde: Epistemologia historiaren filosofiaren orde irakasten da; Marxismo-leninismoa historiaren azken judizioa ari izan da oraintsu arte, eta maismoaren bidetik beste guztiak baino kezkarriago eta nazkarriago izan diren "herri-azuztegiak" ezagutu dira. Psikoanalisi, zenbait bazterretan, gero eta gehiago pentsamenduen funtzioa aritu da, gehienetan linguisti-

karekin batera. Pentsamenduan bertan ageri diren botere zapaltzailearen aparailuak dira pentsatzea debekatzeko dutenak, lehian aritu diren ordezkari horiek.

Postmodernismoan bizi omen gara, eta orain dena, edo ia dena, zilegi bide da. Orain dela gutxi egituren menpe bizi behar izaten genuen: estrukturalismoa zen nagusi nonahi. Orain, aldiz, beste puntura eramanez nahi gaituzte, eta subjektibokeria galantean bizi behar bide dugu.

Kasurako, Freudek eta Lacanek bi buruko errepresioegilea osatu dute. Deleuze eta Guattariren ustez (1972), «psikoanalistek desioaz ez dute fitsik ulertu». Are okerrago, alde batetik psikoanalisi eta linguistika eta bestetik maismoa ezkondu direnean, porrusalda ederra ateratu da. Hala ere, ezkontza horrek badauzka bere jarraitzaileak. Deleuze eta Guattariren ustez azken apaizak dira, fede handikoak, ala fede!

Izan ere, psikoanalisi erreminta (i?) bezala harturik, Freud, Lacan, Heidegger eta antzekoak harturik behin baino gehiagotan (A. Badiou, kasu), *ego-a*, *superego-a*, *estuasuna*, *kuraia* eta antzeko kategoria "handiak" (!!) erabiliz "benetako" subjektu baten atzean dabil. "Erabakia", "angustia" eta psikoanalitikoak datozen kategoriez baliatuz, subjektibokeria guztiak nahastuz, hor ari da «gora anizkuntasuna» oihukatzen. Dena den, bilatze horretan beti egonen da "aktore bateratzaileraren bat", "gidariren bat", berarengan "konfidantza" jartzeko. Honela ulertu behar da «bat bitan banatzen da» delako hura. Gidaria, Mao edo X izanen da. Beti, nola ez, konfidantzazko abangoardiaren bat. Jainkotxoren bat behar dute apezño

horiek: lehen Mao eta alderdi maoista zirenak orain batek daki zer izan den. Beti egonen da, benetako gidaria, signifikatzailea.

Esoterismoz jantzitako filosofia (!?) postestrukturalista mota hori, bere “metodo” berezia erabiliz (“sintomak” “interpretatuz” “metodo” “erabakia” “kuraiez” hartzeko, gertakizunari “fidela” izatearren), gidari baten atzean ibiltzen da. Behin “sintomen” “signifikatzailea” topatu eta gero, “dena argitzen da”. “Benetako” gertaera horri “fidela” ez zaiona “etsaia” da, edo eta “bat bitan banatzen da” delakoaren bitartez, “zatiturik” agertzen da, «etsaiaren parteren bat barneraturik daukalako» (*sic*).

Matematika ezagutzen duenari are barregarriagoak gerta lekizkioke maozale psikoanalisten aldrebeskeriak<sup>3</sup>. Izan ere, zientzian erabiltzen diren anizkuntasunak, filosofian erabiltzen direnetatik kanpo daude:

Filosofia zientziarekin parekatzen denean, maiz gertatzen da azken honen imajina oso ximplea proposatzea, zientzilarien barre algarak sortaraziz (Deleuze eta Guattari, 1991).

Letra larriz idatzitako “benetako” *Egia* psikoanalisiaren bitartez, Lacanen bidez, aurkitu beharra dago. Azpezñoek beraiek auresuposatzen duten *Egia* besterik ez dago fededun berriontzat. Egia jabeak dira. Egia «egiturak zeharkatuko ditu» (*sic*) oihukatzen da. Bitartean “sakrifizioa” eskatu behar zaie “benetako” militanteei.

Horrela aritzen direnek ez dute ulertu, ezta ulertuko ere, gizartean zer gertatzen den, eta “anizkuna” eta “anizkutasuna” etengabeki aipatzen

badituzte ere, beti bateratzaileraren baten bila ibiltzen dira, benetako benetakotasun saildua gauzatu ahal izateko. Natura, gizartea, eta subjektuak ez dira horrela bilakatu, ez bilakatzeko, ez bilakatuko, zeren anizkuntasuna, ugaritasuna ez baita inoiz murriztu, ez murriztuko, erreferente bakar batera. Deleuzek dioenez, «bat bitan banatzen da» delako logika maoistak, dialektika materialistak, ez du inoiz ulertu anizkuntasunaren arazoa.

Baina lastoa, hots hitzontzikeria, alboratzen denean, zer geratzen da? Ni baino askoz argiago mintzatu da Badiou maozalea bera:

Liburu gorri tipian dagoen gehiena, gure artean erabat diren maxima militanteak dira, eta beraien orde ez da ezer hoberik aurkeztu. Liburu gorri tipiak, dauzkan gauzatxo estalinista batzuk kenduz gero, militante progresista eta iraultzailearen manuala izaten jarraitzen du.

Horra hor, beraz, “militantismo” berria nola ulertu behar den. Deleuzek ondokoa dio (Deleuze eta Parnet 1977):

Zenbat eta okertuago egon bizitzan orduan eta lezio gehiago ematen du norberak; ez-estalinismoaz lezioak emateko eta “arau berriak” izendatzeko, nor hobe estalinista izandako bat baino.

*Theatrum Philosophicum* mota guztietatik ihes eginez, naturaren eta gizartearen anizkuntasuna eta ugaritasuna ulertzeko beste pentsamendu mota bat (batzuk) halabeharrezkoa da (dira). Zenbaitzuk pentsamendu “nomada” bat sortu nahian ibili dira

---

3. Kasurako, Gúdelen teorema “politikoki” irakurri behar dela diote.

(Foucault, Guattari, Deleuze, Negri), eta horietariko batzuk (Deleuze, Negri) oraingoz zeregin horretan dabilta, anizkuntasuna bera *eraiki* nahiz, ez “interpretatu” nahiean, zeren egia (minuskulaz) ekoiztu behar den zerbait baita.

Aipaturiko esoterismoz beteriko zaborkeria horretatik aldegin nahi duenari, bi liburu besterik ez dizkiot gomendatuko: G. Deleuze eta C. Parnet (1977), eta G. Deleuze eta F. Guattari (1980).

Utz ditzagun esoterismozko ximplekerietan, paradisu ximple horretan, “teoria” horretan aritzen direnak (badirudi Euskal Herria azken nostalgikoen paradisia dela), eta ekin diezaiozun berriari. Etxepareri kasu eginez *zaborkeriak ari bira* (hots, utikan zaborkeriak!), *dugun egina!*

## 5. Errizoma edo aieta

Hona hemen errizomaren, aietaren, zenbait ezaugarri (Deleuze eta Guattari 1976, 1980):

i) *Lotura- eta heterogeneotasun-printzipioak*. Aietaren edozein puntu beste edozein punturekin lot daiteke, eta lotu behar da. Mota eta natura guztietako eta desberdinetako mailak (biologikoa, politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala eta abar) lot daitezke.

ii) *Anizkuntasun-printzipioa*. Oraingoz ez dakigu ongi anizkuna zer ote den adjektibo izatetik substantibo izatera, anizkuntasuna izatera iragaiten denean. Baina anizkuntasunez pentsatu beharra dago.

Anizkuna soil-soilik substantibo bezala hartzen denean, orduan, eta orduan bakarrik, anizkutasunak bata-

rekiko harremanik ez dauka, ez subjektu bezala ez objektu legez. Aieta ezin erreduzi daiteke ez bat denera ez anizkun denera; subjekturik eta objekturik gabeko *n* dimentsioko anizkuntasunak eraikitzen ditu. Anizkuntasunak, anizkunaren eta bataren aurkakotasunari, dialektikari ihes egiten lagatzen du.

Anizkuntasunak aietak dira. Anizkuntasunak ez dauka ez subjekturik ez objekturik, dimentsio eta magnitude batzuk baizik, zeintzuk ezin baitaitezke haz beren natura aldatu gabe. Hortaz, konbinazio-legeak anizkuntasunarekin areagotu egiten dira.

iii) *Haustura-printzipioa*. Errizoma apur, hauts daiteke edozein aldetan, baina beti berregiten hasiko da bere lerroei jarraituz edo beste batzuk jarraituz.

Edozein aietak badauzka bera estratifikatzeko, kokatzeko, antolatze-ko segmentatze-lerroak; baina baita deskokatze-lerroak ere, zeintzuen bidez etengabeki ihes eginez naturaz aldatzen baitu.

iv) *Kartografia-printzipioa*. Aieta ez dagokio inolako egitura-ereduari edo eta sormen-ereduari. Errizoma mapa da, ez kalkoa. Aieta hedatuz, aldatuz, bereganatuz doan zerbait irekia da, bere dimentsio guztietan konektagarri, itzulgarri, etengabeki modifikazioak jasateko gai delarik. Errizoma egin egin behar den zerbait da, indibiduo soilak, taldeak zein multzo sozialak eraikia hain zuzen ere.

Errizoma, azken batez, sistema irekia besterik ez da. Sistema ireki batean kontzeptuak baldintzei loturik daude, ez inolako esentziari (Deleuze 1990: 48).

Valerirekin batera esan daiteke «sakonena azala dela» (ikus Deleuze 1998b; 1990: 213-220). Talde hierarkikoaren ordean, “zeharkakotasuna” (Guattari 1984) azpimarratu nahi du errizoma kontzeptuak.

Ildo horretatik, Rosenstiehl eta Petitot autoreek (1974) sistema hierarkiko eta zentralizatuei zentrugabeko sistemak kontrajarri dizkiete, automata finituen sareak alegia, non komunikazioa edozein puntutatik bestetara egiten den, kanalak ez baitira aurretik egon, eta indibiduo guztiak trukagarri diren. Indibiduoak momentu konkretu batean *egoera* batek definitzen ditu, tokian tokiko operazioak koordinatzen diren neurrian, buru zentral orotatik independenteki, azken emaitza osoa sinkronizatu egiten delarik.

Komunikazio hierarkikoko eta aurretik emandako loturako sistema zentralizatuen edo eta multizentruko sistemaren aurka, aietak zentrugabekoa da.

Aietak sorrera eta irteera anizkunak dauzka (desioak, nahiak eta gurariak, kasurako, beti errizomatikoki sortu eta bilakatzen dira, cf. Deleuze eta Guattari 1980). Erreferentzi puntua ez dagokio inolako unibertsalari, baizik eta anizkuntasunak eraikitzen dituen pragmatikari.

Zentrugabeko edozein gizartek zein taldek edozein automata zentralizatzaile bazterten du. Honela, Estatua-ren aparatuen aurka, nomadek gerla-makina asmatu zuten, hau da, gerla-makinaren aietak.

Deleuze eta Guattari (1976, 1980) makro eta mikro anizkuntasunak bereizten dituzte. Hots, anizkuntasun molarrak eta molekularrak. Dena den,

anizkuntasun mota horiek ez dira kontrajarriak, dualtasun baten arabera arituko lirakeenak. Aitzitik, anizkuntasunen anizkuntasunak besterik ez daude, zeintzuek mekanismoa osatzen duten (ikus, horretaz ere, Deleuze eta Parnet (1977) 4. kapitulua).

Aietak delako horiek eraikitzea da gaur egungo eginkizun bakarra hala politikan nola ekonomian.

## 6. Maila molarra eta molekularra

Deleuze eta Guattari seguraski eza-gunak dira “molekular” edo mikropolitika delakoaren nozioa dela eta. Mikropolitika hori etikaren barnean uler daiteke.

Beren *Anti-Oedipe* liburuan, Deleuze eta Guattari (1972) errealitate soziala bi mailatan banatu zuten: maila “molekularrean” eta maila “molarrean”. Molarra, era hierarkiko edo estratifikatu batez antolaturik dauden osotasun edo bateratasun mota desberdinei dagokie. Molekularra, berriz, heterogeneoki loturik dauden singularitasun- eta indar-lerroei dagokie. Deleuzek (Deleuze eta Parnet 1977) adierazi duen moduan, Guattariarekin egindako lanean desioa, prozesu inmanente bezala aurkeztea zen helburua. Bikoteak desioaren, nahiaren kontzeptzio aktiboa proposatu du, fluxu positibo eta produktibo legez. Beraz, *Anti-Oedipe*, Deleuzeren hitzetan (1990: 198) “inkonziientearen spinozismoa” zen, hots, Spinozaren *Etika*-ren gaur egungo bertsioa.

Beraien posizioa argiago agertzen da *Mille Plateaux* liburuan (Deleuze eta Guattari 1980), non lehen egindakoez gain beste lerro bat agertzen baita, ihes-lerroa deitzen dutena. Ihes-lerroetan analisi sofistikatuei ihes



egiten dien zerbait gertatzen da, kasurako, 1968ko Maiatza edo eta 1989ko Udazkena Eki European. Baina Deleuze eta Guattarik ez dute inolako lerrorik (ez molarrik, ez molekularrik ezta iheskorrik) goraiatzaren berez, zeren eta lerro horiek barne-arriskuak baitauzkate. Kasurako, zenbait taldekatan agertzen diren mikrofaxismoak nabariegia dira nonahi.

Deleuze eta Guattarik egin nahi dutena zera izan da, gizarte mugimendu eta klase-borrokaren arteko harremanak teorizatua. Ahalegin horretan kapitalismoa eta sozialismo burokratikoak gaitzetsi dute dominazio-era bezala, eta ez dute inolako entusiasmorik erakutsi merkatu-mekanismoaren aurrean. Gizartean dauden hierarkia, dogmatismo eta menperakuntzetatik aldendu nahirik, mikropolitikan aritu dira bi autoreak, gatazka sozialari beharrezko osagaiak ematearren (Guattari 1986: 192).

Deleuze eta Guattarik, beraz, botere- eta dominazio-egituren erlazio kapitalisten analisiari konplexutasun eta aberastasun handiagoa eman nahi diote.<sup>4</sup>

Foucaultek jakintzaren eta boterearen artean erlazio espezifikoak daudela erakutsi du. Berak subjektibotasuneko prozesuak “mekanismo”, “dispositibo”, bezala aurkeztu ditu (ikus Foucaulten “boterearen mikro-fisika” (1980), “boterearen espazioak” (1981) eta Guattariren “desioen mikro-politika” (1984). Berorren metodoak unibertsalak baztertu ditu, eta anizkuntasunetan ekoizten diren prozesuak, beti singular direnak, topatu ditu

(Deleuze 1990). Foucault sekuentzia historikoaren atzetik ibili den bitartean, Deleuzek (eta Guattarik) garrantzi handiagoa ematen die osagaia geografikoei, kokatze- eta deskokatze-mugimenduei. Foucaulten iritziz, estrategiek arlo soziala zeharkatzen dute (Deleuze 1988a); Deleuze eta Guattariren ustez, arlo sozialak leku guztietatik ihes egiten du. Honela, kasu, 1968ko Maiatza, historian indarrez sartu zen bilakaera besterik ez zen izan.

## 7. Bilakaera, prozesua

Dialektikatik, negaziotik eta kontra-esanetik alde eginez, bilakaera, prozesua, gertakaria, positibotasunaren bizi-lerro bilakatu du Deleuzek.

Deleuzeren iritziz, filosofiaren eginkizuna kontzeptuak sortzea da, Spinoza filosofo absolutu izendatu duenari, Deleuze eta Guattariren aburuz (1991) “subjektu” eta “objektu” kategoriek pentsamenduari hurbiltze txarra ematen diote. Indibiduotasuna ez baita halabeharrez pertsonala. Horrela, Deleuze, bere liburu guztietan, prozesuaren, bilakaeraren, gertakariaren natura argitzen saiatzen da, zeren horiek baitira “aditza” eta “atributu” kontzeptuak baztertu ditzaketan kontzeptu filosofiko bakarrak (Deleuze 1990: 194).

Deleuze eta Guattariren iritziz, elementu bakarra erreala da, imajinarioa eta sinbolikoa kategoria faltsuak direlarik. Horrela, errearen unibokotasuna da *L'Anti-Oedipe* liburuak, lehen esan bezala, inkonziantearen spino-

---

4. Parentesi artean esan behar da Guattarik, ohizko Lacanzalea izanik, oso lan interesgarria egin duela psiko-analisan, Freud, Lacan eta enparau guzti horien hitzontzikeria salatuz, baita horrelako esoterismoak erabiliz sor daitezkeen mikrofaxismoak salatuz ere.

zismoaren antzekoa. Beraz, 1968 urtea erreal horren agerpena besterik ez zen izan eta ez ezer sinboliko edo eta imajinariorik.

Izan ere, Deleuzek dioenez (1990) abstraktuak ez du ezer adierazten. Ez dago ezer unibertsalik, ez transzendentetik, ez subjekturik (ezta objekturik ere), ez letra larriz idatzitako Arrazoia, Bata, Egia...-rik; prozesuak besterik ez daude, zeintzuk bateratasunaren prozesuak, subjektibotasunaren prozesuak, razionaltasunaren prozesuak, eta abarren prozesuak izan baitaitezke. Prozesu horiek anizkuntasun konkretuetan gertatzen dira. Anizkuntasunek inmanentzi arloa betetzen dute: inmanentzi planoan eraiki beharra dago. Inmanentzia konstruktibismoa da, non anizkuntasun bakoitza planoaren atal antzekoa baita. Prozesuak bilakaerak dira, zentzu honetan aietak, zuhaitzaren ordez proposatu dituzte Deleuzek eta Guattarik. Horrela, inmanentziak transzendentzia mota guztiak baztertzen dituen gero, 1968 urtea errealaren azalpen hutsa da.

1968 urtearen inguruan, bat-batean, baina entzute eta distira handiz, bilakaera ageri zen<sup>5</sup>. *Multitudo*-aren potentzia boterearen aurka altxatu zen. Etorkezuneko komunitatea aurkeztu zen. Boterearen ukapen edo errefusak kultura berria sortu zuen. Erresistentziaren isilpeko korrontea azalean agertu zen, eredu ontologiko eraikitzailea eskainiz: singularitasun kooperatzaileen komunitatea. Ordurik, singularitasunaren antolaketa, singularitasun kolektibo bezala, eta erresistentziaren garapena, prozesu bat eta bera da: botere eraikitzaile baten prozesua hain zuzen ere.

Esan bezala, Deleuzeren aburuz ez dago ezer unibertsalik, singularitasunak besterik ez daude. Filosofia, beraz, Deleuzeren iritziz, anizkuntasunen logika da. Deleuzek azpimarratzen duena hau da, metodoa, *Rhizome* liburuan (Deleuze eta Guattari 1976) adierazten den metodoa alegia.

Erreflexio edo gogoetaren ordez, konstruktibismoa azpimarratzen du Deleuzek (1990), eta komunikazioaren ordez, espresionismoaren antzekoren bat, Spinoza eta Leibnizen ildotiko espresionismoa (Deleuze 1988b, 1993). *Bestea* kontzeptua, Deleuzeren ustez, ez datza objektu batean edo eta subjektuan (beste subjektu batean), mundu posibleen espresioan baizik. Inmanentzi planoan mundu posibleak sartzeak espresionismoa konstruktibismoaren osagarri bihurtzen du.

Deleuzek dioenez, sormena ez da komunikatzea, erresistentzia baizik. 1968 urtearekin berria eta ezezaguna agertu dira. Berrikuntza, singularitasunen multzo bezala, *multitudo*-aren presentzia da, eta singularitasunen multzoa botere eraikitzailea.

Bilakaeraren gauzatzeak (kasu, 1968 urtearenak) ez gaitu askatzen bilakaera bera, zabaltasunez eta erakuspenez, garatzeko beharretik: gertaerak ez du logika deusezten, berrikuntzara ireki baizik. Bilakaera berriaren logika, singularitasunen komunitate baten logika eraikitzailea da.

Ohizko arloan bageunde, non batak anizkun dena gidatzen duen, dialektikaren preso ginatke. Singularitasunak, *multitudo* bezala, eta komunitateak, kooperazio bezala, apurtu egin

---

5. Bilakaerari buruz, ikus Blanchot 1982, Peguy 1931.

dute dialektika.

Arlo platonikoan bageunde, non anizkun dena batera murrizten den, razionaltasun instrumentalera, zuzenbidera eta Estatuaren funtzionalismora beharturik geundeke.

Singulartasunen logikaren eginkizuna, eta beraz botere eraikitzailearena, singulartasun anizkunaren iragazkaiztasuna eta beronen kooperazio-prozesuen irekiera absolutua garatzea da. Honela, geldiezinezko eta ustezinezko askapen- eta berdintasun-prozesua irekitzen da, non askatasuna kreaioa den, eta berdintasuna kooperazioa.

Singulartasunaren logika praxi eraikitzailea, ekintza ontologikoa bilakatzen da. Filosofiaren eginkizuna eta botere eraikitzailearen gertaera honako hau da, *multitudo*-aren praxia gauza-tzen den kreaioaren prozesu ontologi-koa agerian ezartzea. Botere horrek logikaren era zaharrak deusezten ditu, bata anizkuntasunaren azpian ezartzen baitu; bai eta botere eratua- ren era zaharrak birrindu ere, *multitudo*-aren potentziaren mugagabeko irekieraren menpe jartzen baitu.

Botere eraikitzailea, beraz, botere produktiboa da. Arlo horretatik kanpo, aberastasunaren produkzioa eta bizitzaren birprodukzioa imajinaezinezkoak dira<sup>6</sup>.

## 8. Izakiaren eraketa

Deleuzeren iritziz, subjektibotasuna sartzeak diskurtso ontologikoa are garrantzitsuago izatera eramaten du (Hardt 1992). Geure aitzinean daukagun izakia aurreko indar-harremane

osatu izateak ez dio inolako substantziarik kentzen guretzat; bera suntsitzeko eta birsortzeko daukagun botereak ez du errealtate hori gutxia- gotzen.

Deleuzeren lanetan (ikus Hardt 1992) praxiak *pars construens* materialerako aukera ematen du: praktika da izakiaren eratzea posiblea egiten duena. Boterearen naturaren azterketak Deleuzeri diskurtso materialistan substantzia sartzea ahalmentzen dio, bai eta praktikaren teoria ontologiaren mailara altxatzea ere. Ontologia mota horretan, existentzia, bera oinarritzen duen esentziaren aurretik doa.

Deleuzek, *izan* aditzaren orde, eta alemanierak izakiarekiko daukan begirunerik gabe, ingelesa goraiapatuko du (Deleuze eta Parnet 1977), "eta" juntagailuaren bidez aietak sortzeko duen gaitasuna azpimarratuz. *Nomadologia* berria proposatuz (Deleuze eta Guattari 1980), beste filosofo batzuen artean (Hume, Bergson, Leibniz, Foucault...), Spinoza eta Nietzsche goraiapatzen ditu.

*Subjektu* eta *objektu* kategoriak erabili gabe (Deleuze eta Guattari 1991), dialektikatik urrunduz, Blanchot-en (1982) eta Peguyren (1931) lanen ildotik, bilakatzeari, prozesuari berari lotuko zaio bere obra osoan, gizartea bere ihes-lerroen bidez definitu nahian.

Deleuzek (1968a) Spinoza ikertu du izakiaren metodo eraikitzailea aurkitzeko. Honela, Deleuzeren iritziz, Spinozak irudimen kolektiboaren bidez, desioen eta mugimenduan dauden gorputzen alaitasunaren bidez, *multitudo*-aren praktika zehatzen bitartez,

6. Deleuzeren pentsamenduaren bilakatzeari buruz, ikus Deleuze 1990.

zuzenki eraikirik dagoen izakia aurkezten du. Spinozak subjektuaren teoriarako *pars construens* substantziala garatzen uzten die.

Ontologia eraikitzaile mota horrek, izakiaren potentziaren antolaketa positibo eta material horrek filosofian zertxobait berria markatzen du, hain zuzen ere Deleuze azken urteotan garatzen aritu dena. Deleuzek proposatzen duen filosofia bilakaera-filosofia (1990) da. Beraz, aurrez eraturiko izaki baten filosofia oztupo bezala agertzen da.

### 9. XXI. mendean bizi gara

1968tik 1989ra doan tarteak XIX. mendearen amaiera suposatu du. Izan ere, XIX. mendetik datozen kapitalismo mota guztiek (sozialismo “erreal” barne) beste aro berri bati hasiera eman diote hala Mendebaldean nola Ekialdean. Orain XXI. mendean bizi garela esan daiteke.

Aipaturiko bi hamarkada horietan erresistentzi espazio bezala singulartasun kolektiboak agertu dira: ikasle-mugimendua, ekologisten mugimendua, emakumezkoena... eta mugimendu abertzaleak (mugimendu “nazionalitarioak”, Guattarik izendatu zituen bezala). Hori guztiori berria da, eta ezin da ohizko dialektika materialistaren bitartez adierazi.

Orain *bat*-ak ezin du anizkuna zuzendu, anizkuna ez da *bat*-era murriztu. Orain anizkuntasunaren logika berria beharrezkoa dugu. Alegia, singulartasun kolektibo anizkunen kooperazio-prozesuetan oinarritu behar den logika berria. Botere konstituziogile, eraikitzaile baten aurrean gaude: hierarkia eta zentralismo mota

guztien aurka (*bat* izatera murriztearen aurka), horizontaltasuna eta deszentralizazioa bultzatu dira, eta gero eta gehiago bultzatu beharra dago.

Singularitasuna kolektibo bezala agertu da edonon, Estatu eta kapitalaren aurka. Baina kolektibo horiek ez dira berez azaldu, ez eta Estatuak eta kapitalak erabiltzen duten razionaltasun instrumentalaren bitartez ere. Aitzitik, arrazoi delako medio agertu badira ere, arrazoi mota berezi baten bidez azaldu dira, gogorki eta sendoki plazaratu gainera, arrazoi etikoaren bitartez alegia, kolektibo bakoitza, *multitudo* bakoitza, bere etikari atxikiz. Are gehiago, subjektibokeria guztien aurka, hauxe esan behar da, subjektu kolektiboa bere burua autoezagutuz eta autoantolatuz agertu dela.

Singularitasun kolektiboak bateratasunaren aurka arituz, zentrugabeko sistemetan antolatu dira, errizometan, aietetan, Deleuze eta Guattarik nahi zuten moduan. Hona hemen, beraz, zentralismoaren aurkako antolamendu motarik egokiena: sare hedatuak, zenbat eta hedatuago hobea; anizkuntasun eta ugaritasuneko multizentralismo funtzionala; irteera eta sarrera askoko zentruaniztasuna...

Singularitasunen logika berriak praxi konstitutibo, ekintza ontologiko, bilakatu beharra dauka. Logika horretan *bat*-a anizkuntasun eta ugaritasunaren menpe geratzen da, zeren eta botere eraikitzailea, botere konstituziogilea, kolektiboaren, *multitudo*-aren menpe baitago (utzi, beraz, leninismo eta maoismo mota guztiak!).

Bizi garen aro berrian, beraz, dialektika hegeldarra eta materialista bukatu egin dira. Oraingo logika berriak lehen aipaturiko gertaera berri horiek, singu-

lartasun horiek, antagonismo hustzat azaldu behar ditu eta, praxi bihurtzen diren heinean, askatasunezko prozesu berriei bultzada eman.

Esan bezala, askatasunezko espazio berriak, lurraldetasun berriak, nonahi agertu dira. Demokrazia absolutua deitu diezaiokegu praktika berri horri. Demokrazia hori produktiboa da, indar produktibo berrien emaitza. Orain produkzioak singularitasunak askatzea esan nahi du. Estatutik eta kapitaletik deskokatu beharra dago, kokagune propioak eraikitzeko, eta beroriek era autonomo batez kudeatzeko.

Ustiapen guztien aurkako borroka hauxe bihurtu da, botere eraikitzailea, lehen aipaturiko ezaugarri berezietz jantzitako botere konstituziogilea alegia. Askapen kreatiboa eta berdintasun kooperatzailea ditu ezaugarri 1968tik 1989rako tartean agertu den sormen-indar berriak, gizaki sozial berriak. Produkzio berri honetan, sormen berrian, Marxez haruntzago joan gara. Gizaki sozial berriarekin XXI. mendean sartu gara. Etorkizuna jadanik zenbait arlotan gauzatu da. Berria denak ez dauka inolako zerikusirik historian zehar ezagutu dugunarekin. Beraz, nostalgia mota guztiak soberan daude. Paradigmaz erabat aldatu dugu.

## 10. Mundu-kapitalismo integratua

Filosofia alemaniarren fundazio-ametsen arabera, Estatu unibertsalik ez baldin badago, kapitalismoan unibertsal den bakarra merkatua delako da. Gaurko nazio-Estatuak unibertsaltasun horren gauzatze

konkretuak besterik ez dira. Mundu-merkatu bakarra dago soilik, non ohizko herrialde sozialistek parte hartu baitzuten.

Kapitalismoak axiomatika mota bat (merkaturako produzitzea) eratzten duen neurrian, Estatu guztiak isomorfo bilakatu dira. Isomorfismoak, dena den, ez du homogeneotasunik esan nahi. Izan ere, isomorfismo horrek Estatuaren artean heterogeneotasuna izatea uzten du (Europar, alta, irudi luke Maasstrichteko akordioez geroztik homogeneotasun handi samarra lortu nahi dela).

Estatua soilik beraren haruntzago-koarekiko harremanak kontutan izanik pentsa daiteke, hots, mundu-merkatua aintzakotzat hartuz, eta bere honatagokoarekiko erlazioak, alegia, gutxien-goak, bilakaerak, "jendeak" kontutan edukiz.

Gaur egungo egoera karakterizatzen duena, Estatutik honatago eta haratago dago aldi berean. Mundu-merkatuaren garapenak, nazioarteko korporazio edo enpresa transnaziionalen botereak, hau da, gorputz sozial guztira hedaturiko kapitalismo mota horrek, nazio-Estatuetatik haruntzago makina abstraktua osatu du, zeinek moneta-, industri eta teknologi fluxuak eratzten dituen. Makina hori Mundu-kapitalismo Integratua (hobeki, agian, integratzailea) dei dezakegu.

Estatua baino haruntzagoan dirua da nagusi, bera da komunikarazten duena eta falta zaiguna. Hau ez da marxismoaren kritika, diruaren teoria modernoa baizik, Marxen teoria baino sakon eta berriagoa izan beharko duena<sup>7</sup>.

---

7. Ikus, diruaren teoria berrirako, Schmitt lanak, 1975, 1980, 1984, 1988.

Marxi buruz, Negrik berari egindako elkarrizketan honako hau dio Deleuzek (1990: 232), ez dagoela filosofia politikorik kapitalismoan eta berorren garapenean zentralizaturik ez dagoenik. Marxengan gehien interesatzen zaiona, bere mugak etengabe berrezartzen dituen sistema inmanentearentzat kapitalismoaren analisisa da, muga horiek beti eskala handiago batean agertzen direlarik, muga kapitela bera baita.

Gaur egungo kapitalismo mota ez da gehiago produkziarako kapitalismoa, gainprodukziarako baizik. Denbora berean, ustiapen-, kontrol-eta jagotze-aparatuak gero eta sofistikatuago, hedatuago bilakatu dira, Foucaultek (1969, 1975, 1976, 1980, 1981, 1984a,b) eta Guattarik (1984) erakutsi digutenez. Baina makina abstratu hori ez da ahalguztiduna; berorren disfuntzionaltasunak nazio-Estatuenak bezain nabarmenak dira. Hori dela eta, Estatuetatik honatago haustura batzuk ageri dira, ihes-lerroak eraikitzen dituztenak alegia. Beraz, ez da harrigarria gutxiengo askotxo agertu izatea edonon<sup>8</sup>.

Estatua baino honatagoan kontrole-tik ihes egiten duten bilakaerak daude, etengabe aritzen diren gutxiengoak. Gutxiengo horietako batzuk (nazio berriak, gazte-mugimenduak, mugimendu ekologistak, emakumeen mugimenduak, intsumisoak,...) makina abstraktuaren funtzionamendua, bai eta nazio-Estatuarena, kolokan jarri dute. Ez hori bakarrik, era autonomo eta berehalako batez, beren proiektu desberdinak aurrera ateratzeko ahalegin-duz joan diren heinean, beste gizarte

mota bat proposatu dute, ezagutzen dugunarekiko asimetrikoa dena, hain zuzen ere. Honela, eta soilik honela, ulertu beharko litzateke anizkuntasun horren eginkizuna, alegia, zentralismo eta abangoardismo guztien aurka aritzen diren gutxiengo horien errola edo papera.

Deleuze eta Guattari (1980) singular-tasun kolektibo desberdin horien erakundetzea aztertzen aritu dira: zentralismoaren aurka deszentralizazioarako aietak bezalakoak, hau da, errizomaren antzekoak, antolaketa duen erakundetzea, alegia. Izan ere, askapenerako praktika sozial berriek ez dituzte beren artean hierarki harremanak onartzen; berorien garapena zeharkakotasun printzipioaren araberrakoa da, zeinaren bidez talde sozialak eta interes heterogenoen artean errizomak, aietak eraikitzen baitira<sup>9</sup>.

Errizomen, aieten hedatzea dela bide, haxe lortu nahi da, singular-tasun-prozesuak berak garatzea. Horretarako, balioanizkuneko elkartasunen logika eratu beharra dago. Hori lortzeko ez dago errezeta magikorik, bilakatzeak ez baitu eredu tinko bati atxikitzea esan nahi, nomada izatea baizik, prozesuan aritzea, ekitea. Hori dela eta, logika hori, Deleuze eta Guattariren ustez, nomadologia besterik ez da, hots gerla-makina suposatuko duena.

Historiarik gabeko nomadek, Estatu-aparatuaren aurka, gerla-makina asmatu zuten. Makina horiek espazio leunetan aritzen dira hierarkia gabekoak direlako. Indar nomada izatea honako hau da, Estatu-aparatuaren

---

8. Ihes-lerro horien bidez definitu dute Deleuzek eta Guattarik gizartea, Deleuze (1990).

9. Horrela, desio kolektiboak modelatu eta "gidatu" nahi ditzaketen abangoardia-elizatxoak soberan daude.

eredutik aske ibiltzea. Gerla-makinak berez eta halabeharrez ez du gerla helburu; berak espazio leuna du helburu, berau osatu, bete eta hedatzeko. Nomadismoa, hain zuzen ere, gerla-makina/espazio leun konbinazioa besterik ez da. Kasurako, ezagutzen dugun ekonomi motaren ordean, gerla-makina horrek beste ekonomi mota bat suposatu beharko luke, alegia, ekonomia hedatu, sozial eta deszentralizatua.

Bilakaera eta historia bereiziz (Deleuze 1990), haxe esan behar da, gaurko "europartasuna" ez dela bilakaera, kapitalismoaren historia baizik, zeinek herri zapalduen bilakaera oztopatzen baitu. Bestalde, aipatu beharra dago gaurko "demokraziak" gehiengoan oinarritzen direla; bilakaera, aldiz, beti da, naturaz, gehiengotik haruntzago dagoena (Deleuze 1990). Beraz, bilakaera demokratikoa ez da nahasi behar ezagutzen diren Estatu "demokratiko"-ekin.

Kapitalak mundu-mailan zenbait kokagune berezi eraiki ditu (Ipar Amerika osoa, Europa, Japonia eta laugarren botere hori –Taiwan, Singapur, Korea...). Gaurko europartasuna ez da bilakaera, kapitalismoaren historia baizik, zeinek herri zapalduen bilakaera oztopatzen duen<sup>10</sup>. Erabat erreakzionario diren espazio literario, judizial, kultural, ekonomiko eta politikoak eraiki nahi dira Europan.

Gauza antzekoa esan daiteke bila-

kaera demokratikoaz, zeina ez baita nahastu behar ezagutzen diren Estatu demokratikoekin. Gaurko demokraziak gehiengoan oinarritzen dira; bilakaera beti da, naturaz, gehiengotik haruntzago doana. Beraz, kapitalak bere onerako eraiki nahi duen Estatu gainerako Europatik at, beste Europa berri bat eraiki beharra dago, non nazio berriek, gureak barne, kapitalistotik kanpo dagoen beste ekonomia mota bat eraikitzeko gai izan beharko luketen. Hona hemen gaurko apostu bakarra, apostu teoriko eta praktikoa. Elkertasunean oinarritutako den eraikuntza berri horrek, espazio-denbora berriak asmatu beharko dituen horrek, delako Hirugarren Munduko egoera larria kontutan eduki beharko duen bezainbeste, hemen bertan daukagun Laugarren Munduaz (eta, guri dagokigunez, euskaraz, euskal kulturaz, hitz batez euskal herrigintzaz eta naziogintzaz) aritu beharko luke.

Sormena falta zaigu. Deleuzek dioenez (1990), kontzeptuen sormenak oraingoz existitzen ez diren lurraldetasun berria eta herri berria eskatzen ditu. Arazoa ez da subjektua, subjektibazio-prozesua baizik. Ez dago inongo itzulerarik inolako subjektuarengana, hots, ez dago behar, botere eta jakituriaz jantzitako inolako instantziara itzultzerik. Are gehiago, subjektibazio-prozesurik gabe, gertakari mota berriez mintza daiteke.

---

10. Gogora bedi bilakaera eta historiaren arteko desbedintasuna; ikus Negrik Deleuzeri egindako elkarrizketa (Deleuze 1990).

## Bibliografia

- Blanchot, M., (1982): *L'espace Littéraire*, Gallimard, Paris.
- Burns, B. D., (1968): *The Uncertain Nervous System*, Arnold, New York.
- Churchland, P. S., (1986): *Neurophilosophy*, MIT Press, Massachusetts CA.
- Changeux, J-P., (1985): *Neuronal Man*, Oxford University Press, Oxford.
- Deleuze, G., (1953): *Empirisme et Subjectivité*, PUF, Paris.
- , (1962): *Nietzsche et la Philosophie*, PUF, Paris.
- , (1963): *La Philosophie Critique de Kant*, PUF, Paris.
- , (1966): *Le Bergsonisme*, PUF, Paris.
- , (1968a): *Différence et Répétition*, PUF, Paris.
- , (1968b): *Spinoza et le Problème de l'Expression*, Minuit, Paris.
- , (1968c): *Logique du Sens*, Minuit, Paris.
- , (1988a): *Foucault*, Minuit, Paris.
- , (1988b): *Le Pli. Leibniz et le Baroque*, Minuit, Paris.
- , (1990): *Pourparlers*, Minuit, Paris.
- , (1993): *Critique et Clinique*, Minuit, Paris.
- Deleuze, G., Guattari, F., (1972): *L'Anti-Oedipe*, Minuit, Paris.
- , (1976): *Rhizome*, Minuit, Paris.
- , (1980): *Mille Plateaux*, Minuit, Paris.
- , (1991): *Qu'est-ce que la Philosophie?*, Minuit, Paris.
- Foucault, M., (1969): *L'Archeologie du Savoir*, Gallimard, Paris.
- , (1975): *Surveiller et Punir*, Gallimard, Paris.
- , (1976): *La Volonté de Savoir*, Gallimard, Paris.
- , (1980): *Microfísica del Poder*, La Piqueta, Madril.
- , (1981): "La gubernamentalidad", in Foucault *et al.*, *Espacios de Poder*, La Piqueta, Madril.
- , (1984a): *L'Usage des Plaisirs*, Gallimard, Paris.
- , (1984b): *Le Souci de Soi*, Gallimard, Paris.
- , (1988): "L'Anti-Oedipe: une Introduction a la Vie Non Fasciste", *Magazine Littéraire*, 257, 49-50.
- Guattari, F., (1972): *Psychanalyse et Transversalité*, Maspero, Paris.
- , (1979): *L'Inconscient Machinique: Élément de Schizo-analyse*, Recherche, Paris.
- , (1984): *Molecular revolution*, Penguin Book, Ingalaterra.
- , (1986): "Petites et grandes machines à inventer la vie", in *Les Années d'Hiver*, 152-166 or., B. Barrault, Paris.
- , (1989): *Les Trois Ecologies*, Galilée, Paris.
- Hard, M., (1992): *The Art of Organization: Foundations of a Political Ontology in Gilles Deleuze and Antonio Negri*, [doktorego tesia], University of Washington, Seattle.
- Negri, A., Guattari, F., (1989): *La Verità Nomada. Per Nuovi Spazi di Libertà*, Pellicani, Roma.
- Peguy, C., (1931): *Clio*, Gallimard, Paris.
- Rose, S., (1976): *The Conscious Brain*, Vintage, New York.
- Rosenstieth, P., Petitot, J., (1974): "Automate asocial et système acentrés", *Communications*, 22, 45-62.
- Schmitt, B., (1975): *Théorie Unitaire de la Monnaie, Nationale et Internationale*, Castella, Paris.
- , (1980): *Monnaie, Salaires et Profits*, Castella, Suisse.
- , (1984): *Inflation, Chômage et Malformations du Capital*, Castella, Suisse.
- , (1988): *L'ECU et les Souverainetés Nationales en Europe*, Dunod, Paris.